

8.- FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dadin, egin beharreko funtsezko jarduerak garrantziaren arabera honela antolatzen dira: lehenik eta behin, aplikazioaren sorrera eta kudeaketa izango da ardatz nagusia, gure zerbitzua bertan oinarritzen delako. Horrek barne hartzen ditu diseinua, eguneraketak, datu-segurtasuna eta erabiltzaileen arazo teknikoak konpontzea. Bigarrenik, ezinbestekoa da bezeroekin harremanak zaintzea, hau da, erreserbak, zalantzak eta kexak kudeatzea, eta feedback-aren bidez zerbitzua etengabe hobetzea. Hirugarrenik, negozioaren kudeaketa egingo dugu: kontabilitatea, prezio-estrategiak, hazkunde-plana eta tailer edo hornitzaileekin akordioak antolatzea. Ondoren, marketing eta merkatuan sartzeko estrategiak kokatzen dira; sare sozialak erabiliko ditugu (TikTok, Instagram), eta lehen fasean deskontuak, zozketak eta marka ikusgarri egiteko ekintzak egingo ditugu, adibidez logoa storyetan partekatzen dutenen artean zozketa bat.

Jarduera horietatik batzuk ezin dira kanpora utzi, gure “know how”-arekin zuzenean lotuta baitaude: aplikazioaren sorrera eta kudeaketa, negozioaren kudeaketa estrategikoa eta bezeroekin harremanak gure esku eratuko dira. Aldiz, marketing kanpaina zabalagoak eta hazkunde digitala kanpoko agentzia baten bidez indartuko ditugu, gure marka azkarrago eta modu profesionalagoan hazteko. Horrela, funtsezko prozesuek lehentasun argiak dituzte eta gure balio-proposamena modu eraginkorrean sortu eta merkatuan kokatzeko aukera emango digute.